

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Proiektua aurrera eramateko, ezinbestekoa zaigu beste enpresa batzuekin aliantzak egitea. Izan ere, gure helburua ahalik eta jende gehienari laguntzea da, orokorrean gizartea hobetzea baina esan beharra dago gure kasuan, ez ditugula aliantza asko egingo. Horretarako, Urretxu-Zumarragako, hots, gure herriko autonomoei beraien eskeintzak aplikazioan iragartzeko aukera emango diegu, hauek indartzeko eta laguntzeko. Halere, aplikazioa deskargatzen dutenek premium aukeraren bidez iragarkiak kentzeko aukera izango dute.



Hasteko, Endika informatikoa denez, bera izango da aplikazioa sortuko duena, velneo programaren bidez, guzti dohakoa dena. Horrez gain, Google Play-era 25\$engatik nahiz apple storera 99\$engatik igotzeaz arduratuko da, bertan eskuragarri egoteko. Behin bertara igota, edozeinek ZUBI aplikazioa dohainik deskargatu ahalko du Google Play nahiz Apple Store-tik.

Badakigu eskubide eta legeekin kontu handia izan behar dela. Hori dela eta, gure taldekoen senide batekin jarriko gara kontaktuan, abokatua delako. Honek hainbat aholku eman ahalko dizkigu, baita araudia azaldu eta zenbait gaietan lagundu. Horrez gain, aitorpena aurrera eramateko, aholkularitza batekin harremanetan jarriko gara.

Hasieran aipatu bezala, geure herriko autonomoekin jarriko gara kontaktuan lehendabizi. Haien eskeintzak gure aplikazioan iragarki modura jartzeko eta bultzadaxo bat emateko. Hasteko, Urretxu-Zumarragako Naif eta Natalietta dendak publizitatzan hasiko gara geure aplikazioan, beraiek izan baitira eskatu duten lehenengoak. Hala ere, hasieran esan bezala, publizitatea kentzea ere posible izango da 2,99€ ordainduz gero. Publizitatea izango da gure diru-iturri nagusienetako bat.

Aipagarria da, gure aplikazioaren barnean garraioaren aukera egongo dela. Egia esan, geuk egitearen zein enpresa batek egitearen arteko balantza kalkulatzan aritu gara, hau da puntu hilari dagokionez, hobe ateratzen zaigu geuk egitea, enpresa batek egitea baino. Beraz, merkeena denez, Brandy arduratuko da garraio lana egiteaz, halere, honek diru gehiago balioko du. Prezio hau gasolinaren zein distantziaren arabera jarriko dugu. Izan ere, ez da berdina Beasainera eramatea edo Lizarrara eramatea.

Guk lana egin ahal izateko eta informazioa eguneratua eramateko, lokal bat behar

dugunez, *Uggasa* agentziarekin kontaktuan jarriko gara. Hauek guri lana errazteko, hilabeteko 30€tan utziko digute. Alokairu honen barnean, lokala, argindarra, wifia etab. sartzan zaigu. Beraz, lokala errentan hartzen aurrezten dugun dirua gure enpresa aurrera eramateko erabiliko dugu.



Horrez gain, sare sozialetan ere ikusgai egongo gara; publizitatea egiteko eta bezeroei gurekin harremanetan jartzeko aukera emateko. Instagram, Facebook-en eta Twitwerren egongo gara. Horretarako, aliantzak egingo ditugu gure ingurune familiarrekin. Maria, Twin Melody-en lehengusina denez, beraiekin kontaktuan jarriko da, haiek gure aplikazioa publizita dezaten beraien sare sozialetan eta Endikaren anaia, Athletic Club-eko Dani Garcia jokalaria denez, bere laguntza ere edukiko dugu gure aplikazioa gehiago zabaldu ahal izateko. Orobat, aplikazioan telefono zenbaki bat, emaila eta aurrez-aurreko elkarrizketa gure UGGASA-ko lokalean ahalbidetuko dugu. Horrela, bezeroek erraztasuna eta segurtasuna izango dute eta zalantzak argitzeko, erabiltzaileen kexak agertzeko edota arazoren bat balego guri jakinarazteko aukera ere edukiko dute.

